

25 film labur eta 9 dokumental aurkeztu dira Huhezinema zine jaialdiaren 2. aldira

2009/03/24

Martxoaren 24an aurkeztu zen Donostian Huhezinema film laburren eta dokumentalen jaialdia. Jaialdi hau Huheziko ikasleek antolatzen dute urtero, zehazkiago, **Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari diren 4. mailakoek**. Aurkezpena Koldo Mitxelena kulturunean izen zen, eta bertan izan ziren:

- **Iosu Zabala**, Mondragon Unibertsitateko errektorea
- **Iban del Campo**, Huhezinemako koordinatzailea
- **Ane Irazabal**, ikaslea


Egitaraua

- **Martxoaren 28an**. Larunbatean ikus-entzunezkoen rallya egingo da, Huhezin bertan. Luntxa eta sari banaketa ere hementxe egingo dira.
- **Martxoaren 30ean**. Huheziko ikasleen lanak erakutsiko dira, Huhezin.
- **Martxoaren 31n**. MU lehiaketa eta mintegi bat egingo dira, Huhezin.
- **Apirilaren 1ean**, lehiaketa ofizialeko proiektioak egingo dira Arrasateko kultura etxean.
- **Apirilaren 2an**, sariak banatuko dira Aretxabaletako kultura etxean.

34 lan aurkeztuak

Otsailaren 9an amaitu zen izena emateko epea Huhezinema jaialdian. Behin epea itxita, 34 lan jaso dira guztira, 25 film labur eta 9 dokumental. Hauek dira:

- Alamitou (film laburra)
- Pim, Pam, Pum (film laburra)
- 2.14 (film laburra)
- La Tela De Araña (film laburra)
- De Formación: Profesional (film laburra)
- Armiarma-Gizona (film laburra)
- Spider Boy Vs. El Duende Del Bosque (film laburra)
- Kidnapping (film laburra)
- Emakume Izena (dokumentala)
- Kabia (film laburra)
- Sotano (film laburra)
- Ya No Voy Ha Hablar Más (film laburra)
- La Espinita (film laburra)
- Sabina (dokumentala)
- Cotton Candy (film laburra)
- El Tiempo Prestado (film laburra)
- On The Line (film laburra)
- Yo Sólo Miro (film laburra)
- Elephant (dokumentala)
- Zilborrestea (dokumentala)
- Un Apreton Lo Tiene Cualquiera (film laburra)
- Nanachity (film laburra)
- Sin Aliento (film laburra)
- HMS Area (film laburra)
- Beghiri (film laburra)
- Eskoziako Bira (dokumentala)
- En Cualquier Momento, En Cualquier Lugar (animaziozko film laburra)



- Raskaawa (film laburra)
- El Gachupin Colorado (film laburra)
- Egun Polit Bat Hondartzan (film laburra)
- Interrail (film laburra)
- Consejos (dokumentala)
- Un Lugar En El Mundo (dokumentala)

Informazio gehiago nahi duenak jo dezala Huhezinemaren webgunera, zeina kudeatzen baitute IKOko 4. mailako ikasleek.